

6.1. AUTOINFORMEEN DEFINIZIOA

Subjektu batek bere edozein adierazpenen inguruan ematen duen ahozko (edo idatziko) mezua Ez da zehazten ahoz edo idatzia den. Autoreak ez dira ados jartzen hau definitzerako orduan. Denek onartzen duten definizioa da, hau da, autoinformatzen duena → auto-behaketa. Tresna guztiak honen barne sartzen dira, froga psikometrikoak ere honen barnean daude.

70ko hamarkadara arte konduktistek begi onez ikusi ez Denek erabiltzen dituzte nahiz eta konduktistek ez duten ondo ikusten. Konduktistak honen muturra izango lirateke, baina hauek ere erabiltzen dituzte.

6.2. EBALUA DAITEZKEEN ALDAGAI MOTAK

Nortasuneko ezaugarriak edo dimentsioak (EPI, 16PF, MMPI):

Edozein parametro EPI (Eysenk), 16 PF, MMPI (Minnesota) hemen sartzen dira. Teknika ezberdinak izan daitezke.

– **Tipifikatuak, prozedura psikometrikoak, baremo arauemaileak** Baremoak beste subjektuekin konparatzeko.

– **Jokabide autoinformatua subjektu guztiengan neurri batean dagoen atributuaren seinale gisa** Posible da autoinformatzea planteatzen zaizkien itemen bitartez, atributu baten parte bat adieraziko da, subjektuen duen parte bat. Elementu horiek egoera zehatz batzuei egingo diete erreferentzia, ez atributuari zuzenean. Adibidez, kalera irteteari egingo diote erreferentzia, hori ez da atributua izango, baina bai honen seinalea.

– **Edukiak ebaluatzeko ezaugarriarekin lotura ez beti (zeharka)** Elementu guzti horiek atributua osatzen dute. Zeharka heltzen gara atributuetara egoeratik (itemak).

– **Elementuak estrategia desberdinez aukeratuak (arraz arrazionala, enp enpirikoa, fak faktoriala)**

– **Subjektu-arteko diseinuen bidez**

– **Modu orokorrean formulatuak**

Egoerak (STAI-E):

STAI: Pertsonen ezberdintasuna egoera batetik bestera ebaluatzen da. Egoera, momentuan nola sentitzen zaren.

– **Testuinguruko baldintza zehatzei loturiko egoera emozionalak** Egoerak ere interesatzen zaizkigu, zein erantzun emozional dituen subjektuak testuinguru horietan. Egoera afektiboa aldatzen diren egoera aldakorrek interesatzen zaizkigu. Era estandarizatuan egitean oso

ondo planteatu behar dira aldakortasuna sortzen duten egoerak, hau da, ondo zehaztu behar dira aldakortasuna lortuko duten elementuak

– **Egoera zehatzei lotzen den jokabide laginez osatua**

– **Elementuak teorikoki aukeratuak edo irekiak** Formatu irekian ere planteatu daitezke.

Jokabidezko zerrenda klinikoak

– **Jokabide motorea, kognitiboa, eta fisiologikoaz, jokabideen lagin gisa hartuak, ez ezaugarri intrapsikiko gisa** Zein portaera zerrenda lotzen diren gabezia batekin.

– **Jokabidezko nahasteak ebaluatu** Funtzionamenduko gabeziak ebaluatzeko sortuak daude. Honek diagnostiko batera eramango du edo ez. Mota ezberdinetako portaerak. Hainbat sintoma edo seinale emateko.

Eredu konduktualarekin lotura gehiago du.– **Erabilgarritasun graduak ebaluatu beharreko datuen arabera:** Hauek gradu ezberdinekin erabili behar dira,

–**Ordezkaezinak arazoaren lehen zehaztapenerako** Arazoaren hurbilpen bat egin nahi dugunean erabiltzen da.

–**Beharrezkoak jokabide-arazoa kognitiboa denean (pentsam. obsesiboa)** Jokabide arazo bat duenean adibidez, NOK duen pertsona batekin, adibidez antsietatea egiten ez badu. Autoinformaren bitartez ez bada ezin dugu ikusi, pentsamendua baita. Gauza batzuk ezin jakin ditzakegu ebaluatuak kontatzen ez badizkigu.

–**Erabilgarriak jokabide-arazoarekin lotzen den inguruneke datuez info.**

Prozesu eta egitura kognitiboak:

– **Konstruktuko kognitiboak ebaluatzeko:** Autoinformearen bitartez ez bada ezin dira ebaluatu. Garrantzia asko hartzen du teknikak, izan ere, hautemateak soilik teknika honekin ikusten dira.

Inguruneaz subjektuak duen hautemateei loturiko autoinformeak (sinesmenak, atribuzioak,...)

Jokabide-arazoaren aurrean subjektuak ematen dituen automezuak edo autoinstrukzioak, eta arazo baten ebazpenerako jarraitzen diren prozesu edo estrategia kognitiboak Automezuak: gyure buruari emandako mezuak. Honakoak ebaluatzaileari interesatu ahal zaizkio eta ebaluatuak eman beharko dizkio.

Funtzionamendu motibazionala (igurikapenak, barne edo kanpo estimulu indargarriak,...) Ezin dugu autoinformeirik gabe ebaluatu.

6.3. AUTOINFORMEAREN BALDINTZAK

Denbora: Asko baldintzatu dezake.

– **Erretrospektiboak** Iraganeko informazioa bere mugekin. Oroimen akatsekin gogoratuko dugu, izan ere, beti ez dugu sekuentzia guztia eta guk geuk osatzen ditugun hutsune batzuk izaten ditugu. Ez da nahita egiten dugun zerbait. Ekintzaz edo afektuez ari garen bereizi behar dugu. Afektuak diluitu egiten du. Afektu ona badugu gauza onak gogoratuko ditugu eta alderantziz. Zenbat eta denbora gehiago, orduan eta afektu gehiago. Izan ere, denborarekin informazioa gutxitzen da. Gure bezeroa egoera baten aurrean nola sentitzen aztertzen gaude eta denborarekin hori aldatu egiten da. Nola sentitzen zen une horretan. Une honetan ere nola dagoen interesatzen zaigu. Orain nola pentsatzen duen momentu hartaz edo nola eman dion buelta (damuengatik).

– **Konkurrenteak (erreaktiboak, alderdi mugatuez informatu, alderdi ez garrantzizkoek informatu)** Ez dago soslairik. Erreaktibitateak eragiten du, guk geuk. Agian puzzle bat egiten ari dela zer pentsatzen ari den esateko eskatzen diogu. Gerta daiteke garrantzitsua ez den zerbait kontatzea gu gaudelako.

– **Etorkizunekoak** Etorkizunerako proiektzioa. Ia sendatuko garen, lana bilatuko dugun.. Etorkizunaren inguruan autoinformea egingo dugu. Agian motibazioa edo bere ikuspegia interesatzen zaigu (prespektiba). Etorkizunerako igurikapenak. Nola sentitzen den bera etorkizunarekiko.

Egoera: Artifiziala eta natura ezberdintzen dira.

– **Erregistroa laborategian edo kontsultan** Kontsulta ere laborategi txiki bat da. Egoera artifizialak zein punturaino funtzionatzen duen jakin nahi da. Guk errealitatea eman behar diogu. Egoera artifizialek ere errealitatearen zati bat islatzen dute. Ia ariketa honen bitartez ebaluaketa egokia egiten dugun. Etxean ikusiko genituzkeen egoerak aktibatu behar ditugu

Test situazionalak Exekutiboak baina zeregin kognitiboak ere egon daitezke (kognitiboak barne). Egituratuagoak dira hauek, lanpostu baterako zu saileko buru jarri nahi bazaitut eta portaera ere.

Role-playing

Eginbehar kognitiboak Kognoziozkoak soilik.

– **Egoera naturalean** Naturala interesatzen zaigu baina batzuetan ez dugu aukerarik bertan egoteko. Oso gutxitan ematen da egoera naturala. Adibidez, adimen test batean edo lan bat bidaltzean.

Galderak: Zehatza edo orokorra. Bere prespektiba jakin nahi dugun edo zehatza den zerbait.

– **Galdera egituratuak (orokortasun graduak):** STAI oso zehatzak dira. Fobia duen jakiteko gehiago zehaztu behar da. Galdera jakina erantzun behar du. Ez da libreki erantzuten, baizik eta galdera bati erantzunez.

“Tentsu zaude?” Ez da soilik tentsu, baizik eta nola adierazten den eta noiz.

“Iggogailuan joatean takikardia sentitzen du?”

– **Galdera erdi-egituratuak (autoerregistroak)** Bien artekoa. Adibidez, fijatzeke astean zehar jateko gogo duenean zer sentitzen duen. Nahiko libre baino egoera era erlazioa zehazten dugu, hau da, zer egin behar duen zehazten da baina bestea librea da. Pautak ematen dizkiogu, honek, autobehaketa moduak eta autoerregistroa eskatzen du.

– **Galdera egituratu gabeak (autobiografia eta “ahots gorako pentsamendua”)** Ahots goran burutik pasatzen zaiona kontatzeko eskatzen zaio. Adibidez, bere gaztaroa kontatzeko. Ebaluatuak bere bizitzaz duen elaborazioa interesatzen zaigu. Autobiografia: nola izan zen bere gertaera edo haurtzarora. Ez dugu ezer markatzen, eraketa librea interesatzen zaigu.

Erantzunak : Heldutasun kognitiboaren arabera. Idatzizko formatuari lotuak gehienak, lehena izan ezik.

– **Erantzun irekia (“ahots gorako pentsamendua” eta hitzen asoziazioa)**

– **Erantzun dikotomikoak (Bai/Ez; E/G; bi baieztapen)** txikiak badira dikotomikoak erabiltzen dira.

– **Erantzun eskalarrak** Nagusiagoak garenean.

– **Aukera ipsatiboak (lehentasun ordena)** Orden bat eraiki behar da.

Autoinformeen eraikuntza eta emaitzen trataera:

– **Ikuspegi arrazionala (teoria)**

– **Ikuspegi enpirikoak (MMPI)--> Estatistikan garrantzia**

– **Ikuspegi faktoriala (16pf, EPI) → Teoria bada baina faktore ezberdinak estatistikan bitartez markatzea.**

– **Taldeko diseinuak (desb. interindibidualak) datuen trataerarako**

6.4. AUTOINFORME MOTAK

Elkarrizketa eta antzekoak:

Batzuetan galdera zehatzak edo formatu oso irekiak. Gehienetan oso zehatzak izaten dira.

– **Norbere buruaz informazioa ematean ebaluatzaileari** Norbere buruaz autoinformatzea.

– **Baita autobiografiak eta historia klinikoak ere** Autobiografiak, historia klinikoak ere, nahiz eta, zehatzagoan izan. Malgutasunetik abiatuta.

Galde-sortak, inbentarioak eta eskalak:

Gehienetan honetan pentsatu autoinformearekin.

– Baieztapen edo galdera multzoa

Galde-sortak (erantzun dikotomikoak) Hasiera batean galdesorta erantzun dikotomikoa zutenak izendatzeko erabiltzen zen. Egun galdesorta asko eskalak izango dira.

Eskalak (gradazioko erantzunak) Horrekin batera, hasiera batean, eskala graduazioa neurtzeko erabiltzen zen.

Inbentarioak (erantzun nominalak, zerrendaren ordenazioa) Aukera ipsatiboak Gehienetan egituratuak. Ordena eskatzen dutenak.

– Egituratuak (galdera, erantzuna) eta erabilienak

– Nortasuneko aldagaiak

Autoinforme batzuk teknika subjektiboak dira ez dutelako baremazioa atzetik. Batez ere nortasuneko autoinformeen kasuan, baina ez beti.

Autoerregistroak:

– Jokaera mota (jokabideak, kognizioak, afektuak) askoren ebaluazioa

– **Bi momentu: norbere jokabidea behatu eta erregistratu** Noiz gertatzen den ikusi erregistratzeko.

– **Teknika erdi-egituratua (protokoloa)** gehienetan teknika erdi egituratuak teknika jakin batzuei jarraituz. Protokolo bat izaten dute. Parametro batzuk zehazten dira.

– **Egoera naturaletan** balio handiena ingurune naturalean egiten direlako. Zuzenean fijatu eta apuntatu egiten da. Kasu batzuetan hau interesatzen zaigu. Bereziki oroimena ez erabiltzeko, prospektiboa izateko eta ez extrospektiboa. Honen atzean, egoera naturalean soilik ematen den zerbait ezagutzea da. Aste guztian zehar fjatuko gara eta gero kontaktuko diogu. Gertatzen den zerbait jaso.

– **4 dispositibo mota:** askotan konbinatu egiten dira.

Arkatx eta paperekoak

Erantzun zenbatzaileak (botoia sakatu) makina batekin, maiztasuna interesatzen zaigu soilik, ez duzu sentitzen (edateko gogoia duenean).

Denborako dispositiboak (autokronometratu jokabidearen iraupena) zenbat denbora eman dugun, grabatzea.

Dispositibo elektronikoak (magnetofioiaz grabatu)

Bien arteko
nahasketa
dago

Denak autobehaketa batetik datoz. Hemen edozein dela ebaluatzen duguna behaketa markatzen dena egiten da. Ebaluatuari beste une batean esaten zaio. Gero idatziz pasako diogu, egoera bartan, egoera naturalera hurbiltzeko aukera. Guri pixka bat beranduago helduko zaigu.

Ahots gorako pentsamenduak:

– **Batez ere jokaera kognitiboak, eta gertatzen den unean** Alderdi kognitiboa, kanpotik antzean ezin daitekeena. Gertatzen dena, burutik pasatzen dena momentuan.

– **Egituratu-gabeak erantzunetan** dago egituratuan, pentsatu bezala apuntatzen du, erantzun irekiak dira.

– **Ahozko adierazpen konkurrentea**

– **Laborategiko erregistroa (erreaktibitatearen kontrolik ez)** Ez Ez da naturala, gu bertan gaudelako eta horrek erreaktibitatea sortzen du.

– **Batik bat 3 prozedura:**

Etengabea monologia (adierazpenak eginbeharrak dirauen bitartean) hitz jario etengabea. Ariketa egitean burutik pasatzen zaiona esan behar du ebaluatua. Honentzako kostosoagoa da hau egin bitartean ariketa egitea zailagoa delako. Abantaila da ez diola aukerarik ematen zer kontatu eta zer esan pentsatzeko, ezin du ezkutatu.

Pentsamenduen laginak (ebaluatzaileak eskatutako unean) Une jakin batekin. Agian puzzlea egiten liatzen ari denean pertsona. Desabantaila: berak erabakitzen duela kontatu edo ez.

Gertakarien erregistroa (subjektuak erabakitzen du noiz jokabide interesgarria ebaluatzailearentzat) Berari erabaki kontatzeko interesgarria iruditzen zaiona. Bere irizpidez fidatzen gara. Erabakitzen duenean kontatzea, suposatzen da, benetan baliagarria izango dela.

6.5. AUTOINFORMEEN ALDERDI METODOLOGIKOAK

Balidezia eta fidagarritasun aldakorrak Honetan ahalik eta gehien irabazteko, soslai-iturriak kontrolatu behar dira. Motan arabera ezberdina.

Soslai iturriak:

– **Simulazioa (MMPIren L, EPIren S)** ebaluatua ez kontatzea konstruktuari dagozkion balidoak diren puntuazioak. Agian kontatu digunak ez du islatzen kanporakoitasuna. Erantzuna balidoa ez izatea. Ez dute islatzen konstruktua “kontzienteki”, ziria. Ukapena 16 pf-n. Testetan eskala bat dago hau gertatu dela esan diguna, ez fidatzeko. Simulazioa neurtzen duten item batzuk sartzen dira baterian, hau 14-15-16 urtekoekin oso erabilgarria.

– **Gizarte desiragarritasuna (egokiera pertsonalean)** ez da hain ebidentea ez delako kontzienteki egiten. Ebaluatzailearen aurrean sozialki desiragarria den erantzuna ematen da. Cattelek 16 PFn nola kontrolatu jartzen zuen, baina hau zailagoa da detektatzen. Elkarrizketak egiten baditugu gehiago identifikatu dezakegu, pixka bat ezagutuko dugulako.

– **Erantzuteko joerak:**

Akiestzentzia (baietz) Baietz esateko joera, Honekin apurtzeko modua aurkitu behar da, “ezetz” jarri gabe, honek nahastu egiten baitu. Alderantzizko itemak erabiltzeia kontrolatzeko.

Eskalako erroreak Arriskua bereziki taldearekiko alderatzen denean. Honekin apurtzea, ez izatea oso luzea eta erdiko puntuaziorik gabe. Baina erantzuteko zailagoa da, ez dakigu definitzen gaituen edo ez.

– **Joera zentrala**

– **Larritasuna**

Autoinformeen kalitatea hobetzen duten baldintzak:

– **Subjektuak motibatuak egotea** Ebaluatua motibatua egotea teknika guztietan da beharrezkoa.

– **Informatu beharreko gertakariak gaurkotasuna izatea** Orain dela gutxi gertatutakoaz ematen den informazioa balidoagoa da iraganekoa baino. Afektua vs gertaera objektibagarria.

– **Subjektuek esperientzia egoeraz eta jokabideaz** Egoera edo portaeraz esperientzia izatea lehenengo pertsonan. Nola sentitu zinen zure gurasoek amonarekin laga zituztenean? Hori ez daki.

– **Inferentzia gutxi egon behar izatea (ebaluatzekoa ez bada)** Inferentzia gutxi dagoenean hobe.

– **Ebaluatzaileek inferentzia gutxi egin behar izatea**

– **Galderak zehatzak eta zentzu bikoitzik gabekoak**

– **Erantzunak irekiak izatea** Irekia izatea, ez du esanahi itxirik ez egoterik. Kasu batzuetan itxita lagatzen badigute informazioa ez doa guk nahi dugun zentzuan. Kasuan kasu ikusi behar da. Ez da bat ona eta bestea txarra. Irekia oso ona da bere prespektiba jakin nahi dugunean.